



## Andrabideko harrobiak (Gautegiz - Arteaga)

Ereño eta Gautegiz Arteaga udalerrien artean harrobi zaharrak daude, hala nola Azarraga edo Atzarraga, Atxoste edo Jaime eta abarretakoak. Harrobotan *Ereño Gorria* edo *Bilbo Gorria* deituriko barietatea erauzi da. Egia esan, harri hori birkristalizaturiko arrezife-kareharria da, koralen, moluskuen eta abarren hondakin asko dituen. Kretaziko goiztiarrean (duela 145-65 milioi urte) lurraldea estaltzen zuen itsasoaren hondoaren gaineko sedimentazioaren ondorio da. Gorritasuna jalkinak burdin-oxidoz inpregnatzeagatikoa da.

Meategiok duela 2.000 urte edo gehiago aurkitu ziren, Erromatar Inperioaren garaian. Garai hartan hasi ziren erauzten. Foruko aztarnategian aurkitu eta aipatu materialean tailatu ziren I. eta II. mendeetako hilobiko aldare-harri bi dira horren erakusgarriak. Haiek epealdi horretan merkatu zabalagora eraman ziratekeen, bertako markotik harago merkaturatu ziratekeelarik. Badakigu Arabako lurraldean erabili zirela, Arkaiko meatokian eta Veleia erromatar hirian (Iruña Oka) zehazki. Horrelako materiala askotan ustiatu da apaintzeko, eraikin handiak arintzeko; erabili da epigrafe-euskarri gisa ere.

Erdi Aroan eta Aro Modernoan ere erauzi egin zen. Industriaurreko garai horietan, J.A. Barrio Lozaren iritziz, erauzketa-lanok *kanporatzaileek* egin zituzten. Pertsona horiek zailtasunez ikasten ez ziren ezagupen mekanikoak zituztenak ziren, nekazaritzako lana harrobikoarekin uztartzen zuten baserritarrak kasu askotan<sup>1</sup>. XVII. mendera arte hainbat motatako mazoak eta falkak eta pikatxoak eta barrak palanka gisa erabiliz egiten zen erauzketa. *Arbastatzaileek* (zenbait kasutan, kanporatzaileek eurek) harriei harrobian bertan gutxi gorabeherako formak ematen zizkieten obrara bidali aurretik.

Garai hartan *marmol* honen garrantzia Bizkaiko lurraldearen mugetatik haragotu zen, baita Italiaratu eta Iparramerikaratu ere. XIX. mendean Delmasek adierazi zuen ezen harrobiak agortuta zeudela aspaldidanik gehiegitan eta luze ustiatuak baitziren. Baina jarduerak jarraitu egin zuen. 1897an, agirietako berrien arabera, bi harrobi ustiatu zituzten Pedro Aldekozeak eta Juan Manuel Elordik. 1922an-edo marmol gorriko harrobien jabeak omen ziren Migel Angel Aidekoa, del Norte de España, S.A. Atxostekoa (Ereñoeko Andrabide-burukoa) 1947 eta 1974 bitartean ustiatu zuten Aldekozea anaiak.

Azarragako edo Atzarragako harrobia Andrabideko bazterrean dago. Gautegiz Arteagako udal mugarteko antzinako basetxe baten izenagatik deitzen zaio horrela. 1890ean dokumentatuta daukagu eta ustiapen trinkoaren azken fasea 1968 eta 1989 bitartez garatu zen, Marmolería Bilbaína, S.L.ren eskutik.

XX. mendeko arestiko garaietan, erauzketa Atzarragan era mekanizatuan egiten zen hari helikoidaleko zerraketaren aplikazioaren bitartez. Txirriken bitartez gidatutako altzairu-haridun kordoi txirikordaztatua erabiltzen zen. Txirrikotariko bat eragilea zen. Motore elektrikoak herrestatutako kablea etengabe pasatzeak zaina horizontalki mozten zuen. Gero, mailu zulatzaileak zulaketak egiten zituen, detonatzaileak kokatuko ziren baoak sortzeko. Horrela, ebaketa-plano bertikalak eta, horren ondorioz, marmol-bloke angeluzuzenak lortzen ziren.

Harrobi horretan ez ziren ebakitzeko metodorik modernoak erabili, hala nola, diamante-distirako kableak eta motozerra handiak. Beran oraindik daude konpresore-etxeñoa, kable helikoidalari eragiteko multzo eragilearen etxeñoa eta pegarrak igotzeko gailuz bahitzeko eraikina.

Baina bereziki Atzarragako ebaketa ikusgarriek gogora dakarkigute ezen jarduera hori oso garrantzizkoa izan dela. Jarduera horrek gure ondare arkitektonikoa errazki aztertu ahal dugun produkzio nahastezinaz bete du. Harri horrek apaintzeko balio handia du eta hainbat funtzio betetzeko erabili da. Eliza askotan bataiarri bezala aurki daiteke, Lekeition, Ereñon, Ziortzan eta abarretan; nekazaritzako lanabes gisa, iturrietan apaingarri gisa, Bilboko Arenalekoan, Iturribiden...; eta jauregietan, esate baterako, Arteagako gazteluan, Arriaga antzokian eta Bilboko Bilbotar Sozietatean. Gainera, molduretan, inposta-lerroetan, kapiteletan eta gure inguruko eraikin askotako izkinetako harlanduetan ikus daiteke. Egun ez da arauz ustiatzen *marmol* hau, baina mundu osoan ezaguna da eta hainbat enpresaren katalogoetan agertzen da.

**Testua:** Iñaki Pereda García.



<sup>1</sup> BARRIO, J.A. eta MOYA, J.G.: "El modo vasco de producción arquitectónica en los S.XVI-XVIII". KOBIE, 10 zbk. Bilbo, 1980. 294. orr.



### Andrabideko harrobiak

Gautegiz-Arteaga. (*Andrabide auzoa*).

### Nola heldu:

Gernikatik Lekeitiorako errepidean daude, Muruetagana izeneko gaina pasatu ostean, Ereño udalerriko mugan.

### Bisiten ordutegia:

Abandonaturik eta sartzeko mugarik gabe daude.

### Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(*Gautegiz - Arteaga*)

- Arteagako gaztelua.
- Andre Mariaren parroki eliza.
- Ozollo Errota.

(*Ereño*)

- Ereñozarko San Migel basiliza.

(*Ibarrangelu*)

- San Andres eliza.

(*Kortezubi*)

- Santimamiñeko koba.
- Labe teilagina.